

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA** **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2023-2024 denboraldia**  
**(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)**

### **16. astea (2024ko apirilaren 15etik 21era)**

***Gripe-birusaren zirkulazioa, COVID-19aren intzidentzia eta bronkiolitisaren diagnostikoak balore baxu eta egonkorretan mantentzen dira.***


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 259,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (253,6/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasa nahiko egonkor mantentzen da eta bronkiolitisaren tasak behera egin du aste honetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 24 lagin jagoleen % 66,7 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 4,2) atzeman delarik. Ez da gripe-birusik ala ABSik detektatu, baina bai 6 parainfluenza birus eta 4 errinobirus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 9,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,0/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 23 SARS-CoV-2, 6 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

## AIA Lehen Mailako Arretan

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 259,0 kasukoa izan da (253,6/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 225,0/100.000 izan da Araban, 272,4/100.000 Bizkaian eta 253,6/100.000 Gipuzkoan.

**AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1238,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urteko adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 315,8 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherakoetan.

**AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasak aurreko asteko antzeko balioetan mantentzen dira.


**AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**

ESI	Tasa 16. astea	Tasa 15. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	242,0	256,8	0,94 (0,84-1,04)
Arabar Errioxako ESI	468,6	426,0	1,10 (0,75-1,61)
Barakaldo-Sestaoko ESI	228,1	248,0	0,92 (0,78-1,08)
Barrualde-Galdakaoko ESI	299,0	257,4	1,16 (1,06-1,28)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	306,6	290,3	1,06 (0,97-1,15)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	250,2	270,7	0,92 (0,81-1,06)
Uribeko ESI	202,7	197,2	1,03 (0,90-1,17)
Bidasoako ESI	233,6	236,2	0,99 (0,80-1,22)
Debararrenako ESI	245,5	277,6	0,88 (0,72-1,08)
Debagoienuko ESI	211,1	217,3	0,97 (0,77-1,23)
Donostialdeako ESI	236,0	227,7	1,04 (0,94-1,14)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	306,2	299,9	1,02 (0,87-1,20)
Tolosaldeako ESI	276,9	259,8	1,07 (0,86-1,32)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 1,3 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (1,4/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 117,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (204,5/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoletako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 24 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 66,7 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat atzeman da eta ez gripe-birusik ala ABSik. 6 parainfluenza birus eta 4 errinobirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE**



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 4,2, % 0,0 eta % 0,0, hurrenez hurren). Parainfluenza birusaren positibotasuna % 25,0koa izan da (% 5,3 aurreko astean) eta errinobirusarena % 16,7koa (% 10,5 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoletan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE**


	16. astea		15. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	242	16,8
SARS-CoV-2	1	4,2	0	0,0	75	5,2
ABS	0	0,0	0	0,0	91	6,3
Metaneumobirus	2	8,3	2	10,5	95	6,6
Parainfluenza	6	25,0	1	5,3	44	3,1
Adenobirus	2	8,3	1	5,3	36	2,5,
Errinobirus	4	16,7	2	10,5	279	19,3
Urtaroko CoV	2	8,3	0	0,0	86	6,0

## AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

### Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 9,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,0/100.000 aurreko astean), 9,2/100.000 emakumeetan eta 8,7/100.000 gizonetan.

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorako adin-taldean eman da 24,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherako adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 20,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan eta 45-64 urteko adin-taldean.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE**




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 2,6koa izan da (% 0,0 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 2,4koa (% 2,0 aurreko astean) eta ABSrena % 0,0koa (% 0,8 aurreko astean). Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 22,5) eta parainfluenzarena (% 18,2) izan dira.

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	16. astea		15. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	127	2,4	150	2,0	7685	8,6
Influenza	114	2,6	136	0,0	7210	16,8
ABS	94	0,0	121	0,8	6058	13,1

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




## Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 23 SARS-CoV-2, 6 gripe-birus eta ABS bat detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 6 gripe-birusetatik, 2 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, bat A(H3) eta 3 B motakoak. 2023/40 astetik 6102 detekzio erregistratu dira, 6074 (% 99,5) A motakoak eta 28 (% 0,5) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1864 birusetatik, 441 (% 23,7) A(H3) eta 1423 (% 76,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, martxoan, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboak % 23,6 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak eta JN.1 leinukoak izan dira.

### Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




### COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 16. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 1,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1,4/100.000 aurreko astean); 2,1 gizonetan eta 1,6 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 10 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik<sup>1</sup> (9 ospitaleratu aurreko astean), 4 gizon eta 6 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 70,0 60 urtetik gorakoa izan da.

### COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



<sup>1</sup> Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 16. astean, COVID-19 kasu berri bat erregistratu da EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (2 aurreko astean).

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

**2024ko apirilaren 24an**

**Zaintza Epidemiologikoa  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**